

**2020-21 ikasturtea**

## **Artezkaritza Kontseilua: 9. buletina (2021.04.28)**

Gai hauek landu dira 2021eko apirileko Artezkaritza Kontseiluan.

### **Artezkaritza Kontseilua berritzea**

Joan den apirilaren 14an egin zen Orereta Ikastola Kooperatiba Elkarteko urteko Ohiko Batzar Nagusia. Bertan, Artezkaritza Kontseilua berritu zen. Zehazki, hiru aldaketa proposatu ziren: Haur Hezkuntzako irakasleen ordezkari Leire Mañes izatea, Ainhoa Graciaren ordez; eta gurasoen ordezkari Arantxa Iragorri eta Xabier Gorrotxategi izatea, Arkaitz Tolosa eta Olatz Mirandaren ordez. Batzarrak aldaketa horiek ontzat eman zituenez, apirileko Artezkaritza Kontseiluaren bilera jada kontseilukide berriekin egin da.

Batzar Nagusiaren ondorengo lehenengo bilera izanik, kooperatiba elkarteko ardurak banatu ziren kontseilukideen artean. Hala, hau da Artezkaritza Kontseiluaren osaera, 2021eko apiriletik aurrera:

Lehendakaria: Itziar Navarro

Lehendakariordea: Xabier Gorrotxategi

Diruzaina: Eneritz Gurrutxaga

Idazkaria: Xabier Zabaleta

Bokalak: Mertxe Arano, Iñaki Erkizia, Lide Gabarain, Maider Gezala eta Arantxa Iragorri (gurasoak); Leire Mañes, Jone Briñas eta Egoitz Sayar (HHko, LHko eta DBHko irakasleen ordezkariak, hurrenez hurren); eta Izaskun Perez (administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkaria).

Zuzendaritzako taldea: Anartz Muxika (zuzendari nagusia), Egoitz Verdugo (zuzendari pedagogikoa), Aurkene Astibia (Haur Hezkuntzako zuzendaria), Anjel M<sup>a</sup> Elkano (Lehen Hezkuntzako zuzendaria), Irati Muxika (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zuzendaria) eta Gaskon Etxeberria (Oiartzoko zuzendaria).

Batzarrean adierazi zen bezala, Artezkaritza Kontseilua osatzen dugun guztiok gure ardura seriotasunez hartzetan dugu eta Ikastolarentzako erabaki onenak hartzen saiatuko gara, profesionalei, familieei eta bzkideei entzunez eta erantzunez.

### **Ohiko Batzar Nagusiaren balorazioa**

Joan den apirilaren 14ko Ohiko Batzar Nagusiari dagokionez, Artezkaritza Kontseiluak modu positiboan baloratzen du bzkideen parte-hartzea. Aurreko batzar batzuetan baino guraso gehiago bertaratu ziren eta, horrela, bzkide erabiltzaileen eta ez erabiltzaileen kopurua orekatuagoa izan zen. Alde horretatik, eskerrak eman nahi dizkie Artezkaritza Kontseiluak batzarrera hurbildu ziren bzkide guztiei. Landutako gaiak garrantzitsuak izanik, interesa azaldu zuten eta iritzia eman ahal izan zuten, bozketetan.

Zuzendari pedagogikoak, zuzendari nagusiak eta lehendakariak ahalegin berezia egin zuten azalpen argiak eta ulergarriak emateko, bzkideek egoeraren inguruko informazio garbia jaso zezaten.

Batzarraren aurretik familiekin zein langileekin egindako bilerak baliagarriak izan zirela aipatu zen. Horri lotuta, gaiaren izaerak horretarako beharra ekarriko balu, beriz ere egitea egokia izango litzatekeela esan zen.

## **2022-26 Plan Estrategikorako urratsak**

Datozen urteetako Plan Estrategikoa berritzea dagokio Ikastolari, aurrekoaren epea amaituta. Talde txikiagoan landuko da proposamen zehatza Artezkaritza Kontseiluan aurkezteko. Proposamen horretan definituko da zein gai izan daitezkeen interesgarriak hezkuntza komunitate osoarekin lantzeko eta zein komunitate horretako talde jakin batzuekin lantzeko (gurasoak, langileak...). Era berean, aztertuko da kanpoko zein adituk lagun dezakeen etorkizuneko hezkuntzaren nondik norakoak argitzen.

Plan Estrategiko berrian tokian nagusia hartuko duten gaien artean daude eraikinen inguruko gogoeta eta horiei lotutako inbertsio beharrak, finantza egonkortasuna, beka sistema egituratzea, eta matrikulazioaren bilakaerari lotutakoak.

Ikasturte honetako azken hilabete hauetan, prozesuaren diseinua egingo da. Eta 2021-2022 ikasturtearekin batera ekingo zaio Plan berria osatzeari.

## **2023ko Kilometroak**

Artezkaritza Kontseiluan behin baino gehiagotan atera izan da epe laburrera Gipuzkoako Ikastolen jaia, Kilometroak, berriro ere gure herrian antolatzeko aukera. Batzar Nagusian ere azaldu zen aukera hori aztertzeko unea izan zitekeela. 2021eko eta 2022ko jaiak nork antolatuko dituen erabakita dagoenez (2021eko jaia Goierriko hiru Ikastolak antolatuko dute -Lazkao, Beasain eta Ordizia- eta 2022koa Ibarra Uzturpe Ikastolak), 2023koa izango litzateke oraindik antolatzailerik gabeko lehenengo urtea.

Kilometroak Kultur Elkarteko arduradunekin eta azken urteko antolatzaleekin bilerak egin dira, Ikastolak zituen zalantzak argitzeko. Eta informazio hori eskuetan, uste da Orereta Ikastolak baduela gaitasuna horrelako jaia antolatzeko, eta aukera polita izan daitekeela hezkuntza komunitatea sendotzeko, herriko eragileekin elkarlana estutzeko eta herrian presentzia sendotzeko.

Arrazoi horiengatik, Artezkaritza Kontseiluak erabaki du 2023ko Kilometroak antolatzeko Onereta Ikastolaren hautagaitza aurkeztea. Eskaera maiatzaren hasieran helaraziko zaio Gipuzkoako Lurralde Batzarrari, bertan hartu behar baita erabakia. Lurralde Batzarra Gipuzkoako ikastola guztien ordezkariek osatzen dugu. Gauzak ongi, maiatz-ekainean jasoko du Oneretak bere eskaeraren erantzun ofiziala.

## **Chromebooken erosketa DBH1etik LH6ra aurreratzea**

Ordenagailua funsezko tresna bihurtu da ikaskuntza prozesuetan. Onereta Ikastolan, ikasturte honetara arte, ikasle bakoitzak bere Chromebooka erosi du DBH1en, etapa horretan guztian erabiltzeko. Ikastolako IKT mintegiak eta Lehen Hezkuntzako arduradunek proposatu dute erosketa hori LH6ra aurreratzea, maila horretan jada gailua asko erabiltzen dutelako bai Ikastolan, bai etxeko lanetarako. Besteak beste, horrek DBHrako jauzia leunagoa izatea ahalbidetuko luke. Gailuaren gehiegizko erabilera lotutako arriskuak ere ikusten dira, baina prestakuntza egokia eskainiz, gainditu daitezkeela uste da.

Abantailak desabantailak baino gehiago direla ikusirik eta gailuen bermearren epea bost urtera luzatu dela jakinik, Artezkaritzak erabaki du erosketa aurreratzeko proposamena ontzat ematea. Ikastolak ziurtagiri teknologikoa duenez, orain arteko politikak jarraitzen badu, bederen, Eusko Jaurlaritzaren ikasketa beka jasotzen duten familiek Jaurlaritzatik bertatik lagunten jaso dezakete gailua erosteko.

### **Datorren ikasturteko ordutegia DBHrako**

2020-2021 ikasturte honetan, DBHn ordutegi jarraitua izateko aukera eman zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, COVID-19ak ekarri duen egoera honetan, ikasleen joan-etorriak gutxitzeeko eta jangelan gelditu behar izatea saihesteko.

Datorren ikasturterako, ordea, ez dakigu aukera hori irekita utziko duten ala ez. Ikastolak oraindik ez du jakinarazpen ofizialik jaso. Jaso bezain laster jakinaraziko zaie gurasoei eta landuko da 2021-2022 ikasturteko proposamen zehatza.

### **Haur Eskola: 2021-22 ikasturteko kanpainaren emaitzak**

Datorren ikasturtean, momentuz, 15 haur izango dira Ikastolako Haur Eskolan: 5 HH0n eta 10 HH1en. Emaitza ez da txarra, ikasturtean zehar matrikula gehiago egon ohi direlako (haur batzuk oraindik ez dira jaio, oso txikiak dira...). Erreferentzia gisa, aurtengo ikasturtea 17 haurrekin (4, HH0n eta 13, HH1n) bukatuko du Ikastolako Haur Eskolak.

Curso 2020-21

## Consejo Rector: boletín nº9 (28.04.2021)

En la reunión de abril de 2021 del Consejo Rector se han tratado los siguientes temas.

### Renovación del Consejo Rector

El pasado 14 de abril se celebró la Asamblea General Ordinaria anual de Orereta Ikastola Koop. E. En ella se renovó el Consejo Rector. En concreto, se propusieron tres cambios: que Leire Mañes representara al profesorado de Educación Infantil en lugar de Ainhoa Gracia; y que Arantxa Iragorri y Xabier Gorrotxategi se incorporaran al grupo de padres y madres, en lugar de Arkaitz Tolosa y Olatz Miranda. Como estas propuestas fueron aceptadas por la Asamblea, la reunión del Consejo Rector de abril se ha celebrado ya con los nuevos miembros del Consejo.

Siendo la primera reunión posterior a la Asamblea General, se asumieron las nuevas responsabilidades de la sociedad cooperativa. Así, la composición del Consejo Rector a partir de abril de 2021 es la siguiente:

Presidenta: Itziar Navarro

Vicepresidente: Xabier Gorrotxategi

Tesorera: Eneritz Gurrutxaga

Tesorero: Xabier Zabaleta

Vocales: Mertxe Arano, Iñaki Erkizia, Lide Gabarain, Maider Gezala y Arantxa Iragorri (madres y padres); Leire Mañes, Jone Briñas y Egoitz Sayar (representantes del profesorado de HH, LH y DBH, respectivamente); e Izaskun Perez (representante del equipo de trabajo de administración y servicios).

Equipo de dirección: Anartz Muxika (director general), Egoitz Verdugo (director pedagógico), Aurkene Astibia (directora de HH), Anjel M<sup>a</sup> Elkano (director de LH), Irati Muxika (directora de DBH) y Gaskon Etxeberria (director de Oiartz).

Tal y como se indicó en la Asamblea General, todas y todos los que formamos el Consejo Rector asumimos nuestra responsabilidad con seriedad e intentaremos tomar las mejores decisiones para la Ikastola, escuchando y respondiendo a profesionales, familias y socios.

### Valoración de la Asamblea General Ordinaria

En cuanto a la Asamblea General Ordinaria del pasado 14 de abril, el Consejo Rector valora positivamente la participación de las y los socios. La asistencia de padres y madres fue superior a la de otras ocasiones, con lo que el número de socios usuarios y no usuarios fue más equilibrado. En este sentido, el Consejo Rector quiere dar las gracias a todas y todos los socios que se acercaron a la reunión. Debido a la importancia de los temas tratados, por haberse interesado y participado en las votaciones.

El director pedagógico, el director general y la presidenta hicieron especial hincapié en dar explicaciones claras y comprensibles para que las y los socios recibieran información clara sobre la situación.

Se comentó que las reuniones previas a la Asamblea realizadas tanto con las familias como con los trabajadores fueron interesantes y útiles. En este sentido, se mencionó que, si la naturaleza del tema así lo requiere, sería oportuno volver a hacerlo en el futuro.

### **Plan Estratégico 2022-26: próximos pasos**

A la Ikastola le corresponde renovar el Plan Estratégico de los próximos años, finalizado el plazo del anterior. En un grupo más reducido se trabajará la propuesta concreta para su presentación en el Consejo Rector. En esta propuesta se definirán los temas que pueden ser de interés para trabajar con toda la comunidad educativa y con colectivos concretos de la misma (familias, trabajadores...). Asimismo, se analizará qué expertos externos pueden contribuir a clarificar los pormenores del panorama futuro de la educación.

Entre los temas que van a ocupar un lugar destacado en el nuevo Plan Estratégico se encuentran las necesidades de inversión relacionadas con los edificios, la estabilidad financiera, la estructuración del sistema de becas y la evolución de la matriculación.

En los últimos meses de este curso se realizará el diseño del proceso. Y con el inicio del 2021-2022 se va a proceder a definir el nuevo Plan.

### **Kilometroak 2023**

En el Consejo Rector se ha mencionado en varias ocasiones la posibilidad de volver a organizar a corto plazo la fiesta de las Ikastolas de Gipuzkoa, Kilometroak. En la Asamblea General también se explicó que podía ser el momento de estudiar esta posibilidad. Dado que la organización de las fiestas de 2021 y 2022 está adjudicada (la fiesta de 2021 la organizarán tres Ikastolas de Goierri -Lazkao, Beasain y Ordizia- y la de 2022 la Ikastola Uzturpe de Ibarra), el año 2023 sería el primer año sin ningún candidato para organizarla.

Se han mantenido reuniones con los responsables de la Asociación Cultural Kilometroak y con los organizadores del último año para resolver nuestras dudas. Y con esa información entre manos, se cree que Onereta Ikastola tiene capacidad para organizar este tipo de fiesta, y que puede ser una buena oportunidad para fortalecer la comunidad educativa, estrechar la colaboración con los agentes locales y fortalecer nuestra presencia en el municipio.

Por esos motivos, el Consejo Rector ha decidido presentar la candidatura de nuestra Ikastola para la organización de Kilometroak 2023. La solicitud se trasladará a principios del mes de mayo a la Junta Territorial de Gipuzkoa, donde se tomará la decisión. La Junta Territorial la formamos representantes de todas las Ikastolas de Gipuzkoa. Por tanto, en mayo-junio Onereta recibirá la respuesta oficial a su solicitud.

### **Compra del Chromebook: adelantarla a LH6**

El ordenador se ha convertido en una herramienta fundamental en los procesos de aprendizaje. En Onereta Ikastola, hasta este curso, cada alumno o alumna ha adquirido su propio Chromebook en DBH1 para utilizarlo durante toda esa etapa. El seminario TIC de la Ikastola y el equipo de dirección de LH han propuesto adelantar esta compra a LH6, ya que a este nivel ya utilizan mucho el dispositivo tanto en la Ikastola como en casa. Entre otras cosas, esto permitiría que el salto a DBH fuera más suave. También se observan los riesgos asociados al uso abusivo del dispositivo, pero se considera que pueden superarse ofreciendo la formación adecuada.

Teniendo en cuenta que las ventajas son mayores que las desventajas y que el plazo de garantía de los dispositivos se ha ampliado a cinco años, el Consejo Rector ha decidido aprobar la propuesta de adelantar la compra del Chromebook a LH6. Dado que la Ikastola dispone de un certificado tecnológico, si se mantiene la política existente hasta la fecha, las familias que reciben la beca de estudios del Gobierno Vasco también pueden recibir la ayuda de la misma entidad para adquirir el dispositivo.

### **Horario de DBH del próximo curso**

En este curso (2020-2021), el Departamento de Educación del Gobierno Vasco permitió que el horario de DBH fuera intensivo todos los días, para reducir los desplazamientos del alumnado y evitar que se quedaran en el comedor.

Sin embargo, no se sabe si para el próximo curso dejarán abierta esta opción. La Ikastola aún no ha recibido ninguna notificación oficial. En cuanto se reciba se informará a las familias y se definirá la propuesta del curso 2021-2022.

### **Haur Eskola: resultados de la campaña de matriculación 2021-22**

El próximo curso, de momento, serán 15 los niños y niñas que estarán en la Haur Eskola de la Ikastola: 5 en el aula de 0 años, y 10 en el de 1 año. El resultado es bueno, ya que a lo largo del curso suele haber más matrículas (algunos menores todavía no han nacido, son muy pequeños...). Como referencia, este año la Haur Eskola de la Ikastola finalizará el curso con 17 menores (4 en el aula de 0 años, y 13 en el de 1 año).